## 2023KO ZERGA GASTUEN AURREKONTUA

### KONTZEPTUA ETA BALORAZIOA

Zerga Gastuen Aurrekontuak zerga bidezko diru sarreren murrizketa kuantifikatzen du, zeina ziurrenik urtean zehar gertatuko baita, politika ekonomiko eta sozialeko helburu jakin batzuk lortzera bideratutako zerga pizgarriak egotearen ondorioz.

Arabako Lurralde Historikoaren ekonomia eta aurrekontu araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 FORU ARAUAK bere 31. artikuluan ezartzen duenez, Arabako aurrekontu orokorrek beren tributuei eragiten dieten gastuen zenbatekoa jasoko dute.

Euskadiko aurrekontu araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onesten duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak 5.2 artikuluan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontu orokorrek Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Jaurlaritzari ematen dion informazioa ere jasoko dute, foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu gastuetarako ekarpen gisa egiten dituzten ekarpenei dagozkien zerga onurei dagokienez.

Gainera, Konstituzioaren aginduz, 134.2 artikuluak ezartzen du nahitaezkoa dela Estatuaren tributuei eragiten dieten zerga onuren zenbatekoa jasotzea.

Zerga Gastuen Aurrekontu honen zenbatespena eta kuantifikazioa egiteko, ekitaldian izandako arau aldaketak hartu dira kontuan, bai eta hiru lurralde historikoetarako eta EZKOrako adostutako irizpide metodologiko komunak ere.

2023. urterako aurrekontuan sartutako zerga gastuak 1.193.370.000 € dira, hau da, bilduko liratekeen zerga sarrera teorikoen % 29,60 (aurrekontuan jasotako zerga sarreren eta zerga gastuen zenbateko zenbatetsiaren batura).

Zerga gastu horiek % 15,88 igo dira aurreko urteko zenbatespenekin alderatuta.

Jarraian, tributu itunduen zerga gastuen zenbatespenen banaketa zehazten da, eta, haien barruan, 2023ko osagai nagusien arabera.

## PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2023

### CONCEPTO Y VALORACION

El Presupuesto de Gastos Fiscales, cuantifica la disminución de ingresos tributarios que presumiblemente se producirá a lo largo del año como consecuencia de la existencia de incentivos fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

La NORMA FORAL 53/1992, de 18 diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, establece en su artículo 31 que los Presupuestos Generales de Álava consignarán el importe de los gastos fiscales que afecten a sus propios tributos.

El Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las fundaciones y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone en su artículo 5.2 que los Presupuestos Generales de la Administración de la Comunidad Autónoma consignarán igualmente la información que facilite al Gobierno el Consejo Vasco de Finanzas Públicas sobre los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País

Además, por imperativo constitucional, el artículo 134.2 establece la obligatoriedad de consignar el importe de los beneficios fiscales que afecten a los tributos del Estado.

En la estimación y cuantificación de este Presupuesto de Gastos Fiscales se han tenido en cuenta los cambios normativos habidos en el ejercicio, así como los criterios metodológicos comunes consensuados para los tres Territorios Históricos junto con el OCTE.

Los gastos fiscales presupuestados para el año 2023, asciende a un total de 1.193.370.000 €, lo que representa un 29,60% de los ingresos tributarios teóricos que se recaudarían (suma de los ingresos tributarios presupuestados y del importe estimado de los propios gastos fiscales).

Estos gastos fiscales han experimentado un incremento del 15,88% con respecto a las estimaciones del año anterior.

A continuación se detalla la distribución de las estimaciones de los gastos fiscales por tributos concertados y, dentro de éstos, según sus

principales componentes para el año 2023.

**Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergagatik aurrekontuan 2023rako sartutako zerga gastuak 334.917.000 € dira, hau da, aurrekontuan sartutako gastu guztien % 28,06.

Zerga gastuak diren PFEZaren kontzeptuak honako hauek dira: salbuespenak, lan etekinen hobaria, zerga oinarriaren murrizketak eta kuotako kenkariak, salbu eta familia kenkariak eta kenkari pertsonalak.

Ekitaldi honetarako berrikuntza gisa, azpimarratu behar da zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan etekina murrizteko ehunekoa handitzen duen aparteko neurriaren eragina (4.760.000 €), bai eta prezio igoeraren ondorioak arintzeko kuotaren ezohiko murrizketaren eragina ere (18.600.000 €-ko gastua).

Atal honetako gastuen zenbatekoa % 11,07 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**

Los gastos fiscales presupuestados por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para el año 2023 ascienden a 334.917.000 €, que representan el 28,06% sobre el total de gastos presupuestados.

Los conceptos del IRPF que constituyen gastos fiscales están integrados por las exenciones, la bonificación por rendimientos de trabajo, las reducciones de la base imponible y las deducciones en la cuota a excepción de las deducciones familiares y personales.

Como novedad para este ejercicio, cabe destacar el impacto de la medida extraordinaria que incrementa el porcentaje de minoración del rendimiento en la modalidad simplificada del método de estimación directa, que asciende a 4.760.000 €, así como la minoración extraordinaria de la cuota para paliar los efectos del alza de precios, que supondrá un gasto de 18.600.000 €.

La cuantía de los gastos de este apartado se ha visto incrementada en un porcentaje del 11,07% respecto al ejercicio anterior.

**Sozietateen gaineko zerga**

Sozietateen gaineko zerga dela-eta aurrekontuan ezarritako zerga gastuen zenbatekoa 2023rako 52.986.000 € da; hori aurrekontuan guztira jasotako gastuen % 4,44 da.

Zerga gastuak diren sozietateen gaineko zergaren kontzeptuak honako hauek dira: kontabilitate emaitzara egindako doikuntzak (17.895.000 €), tasa orokorretik beherako karga tasak (13.479.000 €) eta 21.612.000 €-ko kenkariak.

Atal honetako gastuen zenbatekoa % 2,85 murriztu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**Impuesto sobre sociedades**

Los gastos fiscales presupuestados por el Impuesto sobre Sociedades para el año 2023 ascienden a 52.986.000 €, que representan el 4,44% sobre el total de gastos presupuestados.

Los conceptos del IS que constituyen gastos fiscales están integrados por los ajustes al resultado contable que ascienden a 17.895.000 €, los tipos de gravamen inferiores al tipo general por importe de 13.479.000 € y las deducciones por importe de 21.612.000 €.

La cuantía de los gastos de este apartado se ha visto reducida en un porcentaje del 2,85% respecto al ejercicio anterior.

**Balio erantsiaren gaineko zerga**

Balio erantsiaren gaineko zergagatik aurrekontuan 2023rako sartutako zerga gastuak 677.419.000 € dira, hau da, aurrekontuan sartutako gastu guztien % 56,77.

BEZaren zerga gastuak dira salbuetsitako eragiketetatik eratorritakoak (271.342.000 €) eta zerga tasa murriztuekin kargatutako eragiketetatik eratorritakoak (% 21eko orokorra ez direnak), hau da, 406.077.000 €.

Atal honetako gastuen zenbatekoa % 21,08 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**Impuesto sobre el Valor Añadido**

Los gastos fiscales presupuestados por el Impuesto sobre el Valor Añadido para el año 2023 ascienden a 677.419.000 €, que representan el 56,77% sobre el total de gastos presupuestados.

Constituyen gastos fiscales en el IVA los derivados de las operaciones exentas que ascienden a 271.342.000 € y los derivados de las operaciones gravadas a tipos impositivos reducidos, distintos del general del 21%, que ascienden a 406.077.000 €.

La cuantía de los gastos de este apartado se ha visto incrementada en un porcentaje del 21,08%

respecto al ejercicio anterior.

**Gainerako zergak**

Gainerako zergetarako aurrekontuan sartutako zerga gastuak salbuespenen, hobarien, murrizketen eta zerga bakoitzaren tasa orokorra baino txikiagoak diren karga tasak aplikatzearen ondoriozkoak dira. 2023. urterako 128.048.000 € dira, hau da, aurrekontuan sartutako gastu guztien % 10,73.

Atal honetan, besteak beste, ondarearen gaineko zerga, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eta zerga bereziak hartu dira kontuan.

Atal honetako berritasun gisa, elektrizitatearen gaineko zergarako zerga tasaren aldi baterako murrizketa sartu da, 9.058.000 €-koa.

**Resto de Impuestos**

Los gastos fiscales presupuestados para el resto de impuestos responden a exenciones, bonificaciones, reducciones y aplicación de tipos de gravamen inferiores al general de cada impuesto. Para el año 2023 ascienden a 128.048.000 €, que representan el 10,73% sobre el total de gastos presupuestados.

En este apartado se han considerado entre otros el Impuesto sobre el Patrimonio, el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados y los Impuestos Especiales.

Como novedad dentro de este apartado, se ha incluido la reducción temporal del tipo impositivo para el Impuesto sobre la electricidad, que asciende a 9.058.000 €.

## 2023KO ZERGA GASTUEN AURREKONTUAK
## PRESUPUESTOS DE GASTOS FISCALES 2023

| | Sarrerak Ingresos 2023 | Gastuak Gastos 2023 | %(*) |
|---|---|---|---|
| **ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS** | | | |
| PFEZ / IRPF | 1.001.100.000 | 334.917.000 | 25,07% |
| Sozietateak / Sociedades | 215.000.000 | 52.986.000 | 19,77% |
| Gainerakoa / Resto | 63.300.000 | 40.650.000 | 39,11% |
| **ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS** | **1.279.400.000** | **428.553.000** | **25,09%** |
| **ZEHARKAKO ZERGAK ETA ZERGA BEREZIAK / IMPUESTOS INDIRECTOS Y ESPECIALES** | | | |
| Eskualdaketak eta EJD / Transmisiones y AJD | 35.900.000 | 45.241.000 | 55,76% |
| BEZ / IVA | 766.066.500 | 677.419.000 | 46,93% |
| Zeharkako beste zerga batzuk / Otros Impuestos Indirectos | 24.050.000 | 7.463.000 | 23,68% |
| Hidrokarburoak / Hidrocarburos | 265.948.500 | 23.485.000 | 8,11% |
| Fabrikazioko gainerako bereziak / Resto especiales de fabricación | 75.914.000 | 11.209.000 | 12,87% |
| **ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS** | **1.167.879.000** | **764.817.000** | **39,57%** |
| **DOIKUNTZAK / AJUSTES** | | | |
| BEZ / IVA | 455.820.000 | | |
| Bereziak / Especiales | -77.027.160 | | |
| TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK / TASAS Y OTROS INGRESOS | | | |
| Tasak eta bestelako diru sarrerak / Tasas y otros Ingresos | 12.220.000 | | |
| **HITZARTUTAKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS** | **2.838.291.840** | **1.193.370.000** | **29,60%** |

(*) Zerga gastuen ehunekoa kalkulatzeko oinarritzat sarrera teorikoak hartu dira, hau da, Sarrerak + Gastuak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren irizpideari jarraituz.
El porcentaje de Gastos está calculado sobre los ingresos teóricos, es decir, sobre Ingresos+Gastos, según criterio del M.E.H.

**2023KO ZERGA GASTUEN AURREKONTUAK**
**PRESUPUESTOS DE GASTOS FISCALES 2023**

| | Gastuak Gastos 2022 | Gastuak Gastos 2023 | 2023 / 2022 %(*) |
|---|---|---|---|
| **ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS** | | | |
| PFEZ / IRPF | 301.544.000 | 334.917.000 | 11,07% |
| Sozietateak / Sociedades | 54.543.000 | 52.986.000 | -2,85% |
| Gainerakoa / Resto | 37.371.000 | 40.650.000 | 8,77% |
| **ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS** | **393.458.000** | **428.553.000** | **8,92%** |
| **ZEHARKAKO ZERGAK ETA ZERGA BEREZIAK / IMPUESTOS INDIRECTOS Y ESPECIALES** | | | |
| Eskualdaketak eta EJD / Transmisiones y AJD | 48.490.000 | 45.241.000 | -6,70% |
| BEZ / IVA | 559.476.000 | 677.419.000 | 21,08% |
| Zeharkako beste zerga batzuk / Otros Impuestos Indirectos | 6.949.000 | 7.463.000 | 7,40% |
| Hidrokarburoak / Hidrocarburos | 19.623.000 | 23.485.000 | 19,68% |
| Fabrikazioko gainerako bereziak / Resto especiales de fabricación | 1.804.000 | 11.209.000 | 521,34% |
| **ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS** | **636.342.000** | **764.817.000** | **20,19%** |
| **DOIKUNTZAK / AJUSTES** | | | |
| BEZ / IVA | | | |
| Bereziak / Especiales | | | |
| **TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK / TASAS Y OTROS INGRESOS** | | | |
| Tasak eta bestelako diru sarrerak / Tasas y otros Ingresos | | | |
| **HITZARTUTAKO ZERGAK, GUZTIRA/ TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS** | **1.029.800.000** | **1.193.370.000** | **15,88%** |

**2023KO ZERGA GASTUEN AURREKONTUAK /**
**PRESUPUESTOS DE GASTOS FISCALES 2023**

**PFEZ / IRPF**

| | | 2023ko GASTUAK GASTOS 2023 |
|---|---|---|
| **KONTZEPTUAK / CONCEPTOS** | | |
| SALBESPENAK / EXENCIONES | | |
| 1 | Ezintasun iraunkorreko pentsioak - baliaeztasun handia / Pensiones incapacidad permanente - gran invalidez | 12.366.000 |
| 2 | Amatasun eta aitatasun prestazio publikoak / Prestaciones públicas por maternidad y paternidad | 7.730.000 |
| 3 | Kapital irabazi salbuetsiak / Ganancias patrimoniales exentas | 7.059.000 |
| 4 | Loteria eta apustu jakin batzuek / Gravamen especial premios de determinadas loterías y apuestas | 6.235.000 |
| 5 | Kaleratze kalte-ordainak / Indemnizaciones despido | 3.129.000 |
| 6 | Dibidenduak / Dividendos | 2.507.000 |
| 7 | Beste salbuespen batzuk / Otras rentas exentas | 2.376.000 |
| MURRIZKETAK / REDUCCIONES | | |
| 1 | Lan etekinengatiko hobaria / Bonificación a los rendimientos de trabajo | 132.914.000 |
| 2 | Baterako tributazioa / Tributación conjunta | 31.294.000 |
| 3 | Pentsio planak eta BGAE / Aportaciones a planes de pensiones y EPSVs | 28.940.000 |
| KENKARIAK KUOTAN / DEDUCCIONES DE LA CUOTA | | |
| 1 | Ohiko etxebizitza / Vivienda habitual | 69.841.000 |
| 2 | Jarduera ekonomikoak sustatzea / Fomento actividades económicas | 2.473.000 |
| 3 | Mezenasgo jarduerak / Actividades de mecenazgo | 2.891.000 |
| 4 | Sindikatuei ordaindutako kuotak / Cuotas satisfechas a sindicatos | 1.546.000 |
| 5 | Beste kenkari batzuk / Otras deducciones | 256.000 |
| 2023rako ALDI BATERAKO NEURRIAK / MEDIDAS TEMPORALES PARA 2023 | | |
| 1 | Kuotaren minorazioa / Minoración de cuota | 18.600.000 |
| 2 | Jarduera ekonomikoak - Ehuneko kengarri finkoa gehikuntza ZZE / Activ Econ - Incremento porcentaje otros gastos en Estim Directa Simplificada | 4.760.000 |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **334.917.000** |

## ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE PATRIMONIO

| | 2023ko GASTUAK<br>GASTOS 2023 |
|---|---|
| **KONTZEPTUAK / CONCEPTOS** | |
| SALBUESPENAK / EXENCIONES | |
| 1. Salbuetsitako gutxienekoa / Mínimo exento | 10.639.000 |
| 2. Ohiko etxebizitza / Vivienda Habitual | 1.777.000 |
| KUOTAREN MURRIZKETAK / DEDUCCIONES DE LA CUOTA | |
| 1. PFEZko kuotaren doiketa / Ajuste cuota IRPF | 28.234.000 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **40.650.000** |

## SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

| | | 2023ko GASTUAK<br>GASTOS 2023 |
|---|---|---|
| **KONTZEPTUAK / CONCEPTOS** | | |
| KONTABILITATE EMAITZAREN DOIKETAK /<br>AJUSTES AL RESULTADO CONTABLE | | |
| 1 | Zuzenketak gastuetan / Correcciones en materia de gastos | 4.969.000 |
| 2 | Zuzenketak sarreretan / Correcciones en materia de ingresos | 6.447.000 |
| 3 | Oinarri ezargarriaren zuzenketak / Correcciones en la base imponible | 6.479.000 |
| TASA BEREZIAK / TIPOS ESPECIALES | | |
| 1 | Mikroenpresak eta enpresa txikiak / Micro y pequeñas empresas | 10.293.000 |
| 2 | Kooperatibak / Cooperativas | 1.133.000 |
| 3 | Gainerakoa / Resto | 2.053.000 |
| EKITALDIAN SORTUTAKO ETA APLIKATUTAKO KENKARIAK /<br>DEDUCCIONES GENERADAS Y APLICADAS EN EL EJERCICIO | | |
| 1 | Korronteak ez diren aktibo berrietan egindako inbertsioak/ Inversiones en activos no corrientes nuevos | 3.116.000 |
| 2 | Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak / Investigación, desarrollo e innovación tecnológica (I+D+i) | 2.288.000 |
| 3 | Kenkari kooperatiboak / Deducciones cooperativas | 2.043.000 |
| 4 | Enplegua sortzea / Creación de empleo | 514.000 |
| 5 | Beste kenkari batzuk / Otras deducciones | 1.520.000 |
| AURREKO EKITALDIETAN SORTU ETA EKITALDI HONETAN APLIKATU DIREN KENKARIAK /<br>DEDUC GENERADAS EN EJER ANTERIORES Y APLICADAS EN ÉSTE | | 12.131.000 |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **52.986.000** |

## ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS

| | | 2023ko GASTUAK<br>GASTOS 2023 |
|---|---|---|
| **KONTZEPTUAK / CONCEPTOS** | | |
| ESKUALDAKETEN ETA EJD-EN GAINEKO ZERGA /<br>IMPUESTO SOBRE TRANSMISIONES Y AJD | | |
| 1 | Ondare Eskualdaketak / Transmisiones Patrimoniales | 34.252.000 |
| 2 | Sozietate eragiketak / Operaciones Societarias | 2.488.000 |
| 3 | Egintza Juridiko Dokumentatuak / Actos Jurídicos Documentados | 8.501.000 |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **45.241.000** |
| BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA /<br>IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO | | |
| 1 | Salbuespenak / Exenciones | 271.342.000 |
| 2 | Tasa murriztuak / Tipos reducidos | |
| | % 4ko tasa / Tipo del 4% | 138.878.000 |
| | % 10eko tasa / Tipo del 10% | 267.199.000 |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **677.419.000** |
| | **ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA /<br>TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS** | **722.660.000** |

**ZERGA BEREZIAK ETA ASEGURU PRIMAK**
**IMPUESTOS ESPECIALES Y PRIMAS DE SEGUROS**

| | | 2023ko GASTUAK<br>GASTOS 2023 |
|---|---|---|
| **KONTZEPTUAK / CONCEPTOS** | | |
| ZERGA BEREZIAK / IMPUESTOS ESPECIALES | | |
| 1 | Hidrokarburoak / Hidrocarburos | 23.485.000 |
| 2 | Elektrizitatea / Electricidad | 9.293.000 |
| 3 | Alkohola eta edari deribatuak / Alcohol y bebidas derivadas | 1.916.000 |
| 4 | Zenbait garraiobide / Determinados medios de transporte | 514.000 |
| | **GUZTIRA / TOTAL** | **35.208.000** |
| ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE PRIMAS DE SEGUROS | | 6.948.000 |
| | **BEREZIAK ETA ASEGURU PRIMAK GUZTIRA / TOTAL ESPECIALES Y PRIMAS DE SEGUROS** | **42.156.000** |